



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

Biharko lanbideak eta gaitasunak



Biharko lanbideak eta gaitasunak

Frédérique HARIVONGS eta Jean-Baptiste ETCHEOk animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Lehentasuna Ipar Euskal Herriko lanbide eta jardunen **ezagutza doitzea** da: lurraldean formakuntza erraztea da xedea, Ipar Euskal Herrian ditugun lanbideetara egokituz. Gazteentzat du bereziki garrantzia, hobeki ezagutu behar baitute zein lanbide dituzketen tokian bertan.

Aldi berean, lurraldean proiektu berritzaile anitz ari dira garatzen, baina oso gutxi kontuan hartuak dira eta laguntza gutxi dute, ezagun ez direlako.

Hirialde/baserrialde oreka sortu behar da: Ipar Euskal Herriak bi lurralde mota horiek ditu eta garatu behar dira. Lurraldearen antolamenduari dagokionean, kontuan hartu behar da lurren kudeaketan dugun arazoa eta gogoan atxiki behar dugu baserrialdeetan laborantzak duen garrantzia (atxiki behar dena eta areagotu).

Azkenik, solasaldi horietan argi agertu da badela jokoan **gazteen lana**: tarte gero eta handiagoa urratzen ari da gazteek lanarekin ezartzen ari diren harreman berriaren eta enpresen munduaren eskakizun berrien artean.... Haien bateratzeko, formakuntza eredu berrikusi behar da eta lanbideen gainean baino gehiago gaitasunen gainean lan egin.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Hirialde/baserrialde orekari dagokionean, baserrialdeetan formakuntza garatu beharko litzateke, lurralde dinamikoagoak izan daitezten. Laborantza sektoreak du bereziki formakuntza behar hori, batez ere familia bidezko transmisioa ukan ez duten laborarientzat, laborari familiakoak ez direnentzat: egun dutena baino formakuntza handiagoa behar dute, egungoa ez baitzaie egokitzen.

Gazteen lanari dagokionean, honako hauek egin behar dira:

- Alde batetik, **haiek lanaz duten irudipenari buruzko soa irekitzea**: haien nahietara irekitzea, haiek ikuspuntu jakin batera behartu ordez;
- Beste aldetik, **pedagogia eredu egokitzea**: karrera bitartean ere ikasten jarraitzea; lanbide berrietara, eskari berrietara lasterrago erantzutea; pedagogia berritzailea egitea brainstorming delakoaren bidez eta talde lanaren bidez...

URRATZEKO BIDEAK...

- **Lanbiderako ateak zabaltzen dituen formakuntza** eta formakuntza jarraitua garatzea
- **Lurraldeko lanbideak** ezagutzea, lurraldeko lanpostu eta gaitasunen aurreikuspenaren kudeaketa (GPEC)
- **Gazteen igurikimenen** diagnostikoa